

eleketa

Oroimen bilketa Iparraldean



ELEKETA programa 2007-2013

*Ipar Euskal Herriko ahozko ondarea
bildu, zaindu, zabaldu*

Obragin 2009tik

Obralari



Sustengatzaile : Akitania eskualdeko Kontseilua, Akitaniako Kultura eta Komunikazio Ministeritza (DRAC)

Aurkibidea

1	 	Eleketa bere hastapenetik	3
1.1		– Historia	3
1.2		– Urtez urte	4
2	 	Eleketa gaur	6
2.1		- Bilketa	6
2.1.1		Lurralde <i>banaketa</i>	6
2.1.2		<i>Jatorri sozioprofesionala</i>	7
2.1.3		<i>Lekukoen adina eta sexua</i>	8
2.1.4		<i>Aipatutako gaiak</i>	9
2.1.5		<i>Metodologia</i>	10
2.2		– Ikusentzunezko fondoaren balorizazioa	11
2.2.1		<i>Tratamendua</i>	11
2.2.2		<i>Balorizazio ekintzak</i>	12

Euskal kultur erakundea

Etnologia eta kultura ondare inmateriala saila

Arduraduna : Terexa Lekumberri

Lota jauregia – BP 6
64480 Uztaritze
Tel. 05 59 93 25 25
lekumberri@eke.org

1 | Eleketa bere hastapenetik

Euskal kultur erakundeak Eleketa programa abiatu du 2007an bilketa handi batekin Nafarroa Beherean, adinekoen ahozko memoria euskaraz bilduz.

Oroitaraz dezagun programa honen hastapena, bi urte lehenago hasia.

1.1 - Historia

2005ean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak bilketa proiektu handi bat hasi du lurralde osoan (Nafarroa Garaia eta Nafarroa Beherea).

Alfredo Asiain proiektuaren zuzendari teknikoak eskatzen dio Iruneako Euskokultur fundazio pribatuari bilketaren parte bat bere gain har dezan, hain zuzen Iruneako eta Zangozako merindadeetan. Unibertsitatea Nafarroa hegoaldeaz arduratuko da (Lizarra, Erriberri, Tuteria).

Proiektuak berehala Euskaltzaindiaren hizkuntz babesa eta onespina lortu du.

2005ko apirilan, Nafarroa Beherea bilketa horretan integratu nahian, Euskokultur fundazioak Euskal kultur erakundeari parte hartze eskaera luzatzen dio.

Partaide potentzialak ikusi ondoan (Irulegiko Irratia, Aldudarrak Bideo telebista partehartzailea, Haize Berri kultur zentroa), EKEk proiektua aurkeztu du Nafarroa Behereko Garapen-Proiektu Kolektiboari (PCD Baxe-Nafarroa delakoa), eta honen hiru batzorde ezberdinen baieztapena lortzen du (identitate-kultura-ondare batzordea, garapen batzordea, Kontseilu Sindikala).

Ondotik, bilketa proiektua partaide instituzionalei aurkeztua da, uztailaren 5eko eta irailaren 6eko batzordeetan. Printzipiozko iritzi biziki baikorra ukaiten du.

Pirineo-Atlantikoetako Kontseilu nagusiarekin eta Akitania eskualdeko Kontseiluarekin adostuta, esperientzia eredugarri bat eramanen du Euskal kultur erakundeak, 2007ko uztailetik abendua bitarteran, Donapaleuko kantonamenduan.

1.2 – Urtez urte

2007 : Esperientzia eredugarria

Beraz Amikuzen oinarritua, esperientzia eredugarri honen bidez bilketaren metodologia finkatua da: biltze prozesua, artxibatze edo begiratze lana, eta azkenik hedatze edo balorizazio ekintzak.

10 inkestetara mugatua dena 2007an, Nafarroa Beherea osoan aplikatzen ahalko da metodologia berdina, Oztibarre, Iholdi eta Garazi-Baigorri aldera hedatuz.

2008 :

Lehen fasea publiko zabalarari aurkeztua da Donapaleun 2008ko martxoaren 28an, eta hogeitabat inkesta berri eginak 2008an. Arte hortan, lekukotasunen bideo zatiak beren deskribapenekin integratuak dira Euskokultur fundazioko datubasean eta Nafarroako Unibertsitate publikoaren atarian aterpetuak.

➤ *2009tik goiti : Departamenduko Kontseilu nagusiaren obraginpean*

2009 urtea, bihurgune garrantzitsua Eleketa programarentzat.

Urte hortan, Euskal Herriko Lurralde Kontratua 2007-2013 hiru zutabe estrategikoetan eta 34 ekintza programatan egituratua da.

Hirugarren zutabearen (ondare naturala eta kulturala azkartu eta transmititu) kokatua dago 29garren programa (kulturaren lurralde garapena). Azken huntan barne den 29.2 proiektuan bermatzen da Eleketa programaren egituraketa eta garapena, ondare inmaterialaren balorizatze programa zabalaren baitan.

Pirineo-Atlantikoetako Kontseilu nagusiak Eleketa programaren obragintza hartzen du, obralaritza Euskal kultur erakundearen esku dagola beti (ikus EKE/CG64 2009-2010-2011 hitzarmena, 2012an berritua).

Ordur geroztik, EKE departamenduko artxibo zerbitzuarekin elkarlanean ari da. Lekukotasunak, numerizatuta eta zatitu ondoan, Arkhéia logizielaren bidez tratatuak dira. Inbentarioa eta indexazioa eginak dira artxibo zerbitzuaren aginduak segituz.

Gisa horretan, publiko zabalak nahiz ikerlariek ikus lezazkete bilketaren bideo zatiak, Baionako artxibategian ala Paueko artxibo zerbitzuan. Inbentario numerikoak kontsultagarri dira sarean, earchives.cg64.fr departamenduko artxibo zerbitzuaren gunean.

Bilketa, ordu arte Nafarroa Beherean mugatua baldin bazen, orai Lapurdi eta Xiberoa probintzietara zabaldua da.

2010ean, Donibane Lohizune/Ziburu portuko memoria bildua da 27 elkarrizketetan.

Lekukoen hautatzerakoan, ez da gehiago jatorri eremua lehenetsia, baizik eta jorratuko den gaia.

2012an sortu den batzorde zientifikoak orientazio nagusiak finkatzen ditu.

2012an eta 2013an, batzorde honek eman gaiak barnatuak dira :

- Euskal dantza ohidurak (horietan, Xiberoko pastoralak eta maskaradak),
- Aturriko itsas ondarea,
- Espartingintza eta zapatagintza.

2009 eta 2013 bitartean, Eleketa programa garatu da, urtean 35 inkesta eginez: 2013ko abenduaren 31n, 197 inkesta egin dira orotara, hots 228 lekuko elkarrizketatuak.

2009 aurretik bildutako fondoa Euskal kultur erakundearen jabegoan da, departamenduko artxibo zerbitzuan ezarria.


2 | Eleketa gaur

2.1 – Bilketa

Merezi du Eleketa programari behako bat ematea etnologia ikuspegitik, lekukoen perfilea aurkeztuz, hauen gizarte maila eta ofizioa aztertuz, bai eta aipatutako gaiak zerrendatuz.

Lekukoen kopurua (228) inkestenarena (197) baino handiagoa da, ez baitira inkestak beti indibidualak izan : bikote, senitarte, partzuer.


➤ 2.1.1 Lekukoen banaketa lurraldean



Lekukoen kopurua probintziaka.

Lekukoen hauteka, hastapenean Nafarroa Beherean oinarritua izateak probintzia hortan dagon kopuru handia egiaztatzen digu (100). Ondotik, 99 inkesta egin dira Lapurdin. Eta lekukoen %12,7 xiberotarrak dira (29).

➤ **2.1.2 Jatorri sozioprofesionala**





Informatzaileen ogibideari dagokionez, honela bana daiteke :

- %22 baino gehiago laborantza, abere hazkuntza eta artzaintza mundutik dator ;
- %5,7 artisauak dira eta %4,4, komertsantak;
- %12 industrian ari dira (Hazparneko zapatagintza, Mauleko espartingintza, Mousserolles-eko burdinolak, Baionako gatzategiak) ;
- Inkestatuen %14 arrantza mundukoak dira (Donibane Lohizune/Ziburuko portua);
- %3,5, funtzio publikokoa eta administrazioakoa (erakaskuntza, aduana, posta, herriko etxe, oihanzain, etab.).

Ez da sistematikoki jatorri sozioprofesionala kondutan hartua lekuko en hautaketan, bereziki jakitate berezien kasuan, adibidez euskal dantza ohiduretan egin bilketan.

➤ **2.1.3 Lekukoen adina eta sexua**

Proportzionalki, gizon gehiago bada eta adina nahitara handia da :
60 urtez petik, 21 pertsona; 60 eta 80 urte artean, 103; 80 urtez goiti,
104.



➤ 2.1.4 Aipatutako gaiak

Transbertsalak ala gaikilakoak, ikusentzunezko inkestetan aipatutako gaiak hauek dira :

- ✓ ohizko ekonomia: laborantza, laborari errenta sistema, abere hazkuntza, artzaintza, erle-hazkuntza, artisautza, arrantza mundua, kontrabanda, lehengo ofizioak, garraio moldeak;
- ✓ industria: zapatagintza Hazparnen eta espargingintza Maulen, Aturriko burdinolak, Baionako gatzategiak;
- ✓ jakitate eta ezagutza bereziak: ihizia, arrantza, zuhaitz fruitudunak, landare sendagileak;
- ✓ biziaren zikloa: pasaia erritoak (sortzea, komunioea, ezkontza, herioa), heriotze ohidurak, initiazio erritoak (kongregazioea, eliza sartzea), nesken eta mutikoen formakuntza bereziak, etab.;
- ✓ lanen zikloa (egun batean, urteko sasoiaren arabera, aktibitateen arabera) ;
- ✓ besta erlijiosoak eta paganoak;
- ✓ euskal dantza ohidurak: dantza taldeen historiaren bitartez edo besta errituen bidez (Besta-Berri, maskaradak eta pastoralak);
- ✓ musikak eta kantuak;
- ✓ sinesmenak eta leiendak;
- ✓ bizi soziala eta kulturala: elizaren eta eskolaren eragina, euskara eta frantses hizkuntzen arteko harremanak, klaseak edo kategoriazkoak (etxetiarak edo bordariak, etxeko jaunak edo jabeak, buhamiak, etab.) ;
- ✓ gertakizun historiko aipagarriak (gerlak, emigrazioa).

➤ 2.1.5 Metodologia

Kalitatea nahitara azpimarratua dela, metodologia honela finkatua da :

✓ **Tokiko gidaritza batzorde bat**

Honek zehazten du eta baimentzen eremu jakin batean (herri ou herri elkargo) diren **gai ohargarriak** eta **lekuko potentzialak**.

✓ **Hurbiltasun urratsa**

Telefono deiaren ondotik, inkestatzaileak lehen bisita bat egiten dio lekukoari:

- Hitzordu honek elkar trukaketa laguntzen du eta prestatzen (egiten bada) egingo den filma,
- Lekukoaren ezagutza bereziak argitara ematen ditu eta elkarriketa gidoia prestatzeko lagungarri da.

✓ **Araberako giza ahalak eta teknikoak**

Ikusentzunezko grabaketarentzat bi pertsona behar dira, EKEko inkeсталaria eta Aldudarrak Bideo enpresako teknikari bat, bai eta material profesionala.

✓ **Zuzenbide bermeak**

Lekukoak bere lekukotasunaren grabaketa eta hunen erabilpena baimentzen du eskubide baimen fitxa bat izenpetuz, baldintza zehatz hauetan: hedapena segurtatzea irabazirik gabeko helburuarekin, gune eta euskarri ezberdinetan (departamenduko artxibo, herriko etxeei eman DVD, tresna pedagogiko, irratsaio ala telebista emankizun, datubase numeriko, internet, etab.).

2.2 – Eleketa ikusentzunezko fondoaren balorizazioa

➤ 2.2.1 Tratamendua, artxibatzeko eta komunikatzeko

Ahozko bilketaren helburu nagusietarikoa da **kontserbazioa eta komunikazio publikoa** departamenduko artxibo zerbitzuaren bidez, Pauen eta Baionako artxibategian.

Grabaketa eta **numerizazioa** Aldudarrak Bideo ikusentzunezko enpresak segurtatu ditu.

EKEK egin **muntaketaren** ondotik (garbiketa eta zatiketa), elkarrizketa bideo zatitan banatua da.

Bideo zatiketa hori honela egiaztatua da: alde batetik lekukotasuna integratua izango den datubasearen berezitasunaren arabera (gaia edo lurraldea lehenetsia), bestetik elkarrizketaren berezitasun bereziak ikusiz:

- ✓ Gaia bera (galdezketaren eremu zabala ala hertsia), aurretik ikusitako problematika batean. Bizi ibilbide edo gerla oroitzapen batek bideo zati gutiago izango ditu aguardianta baten lekukotasun teknikoak baino.
- ✓ Inkestalariak (edo lekukoak) bilatzen duen zehaztasun gradua.
- ✓ « alde jorratu gabeak », elkarrizketa garaian inkestalariak gehiago zilatatu nahi dituenak.

Ondoko urratsean tratamendu artxibistikoa egina da, **inbentarioa eta indexazioa** Arkhéia logizielarekin, frantsesez, departamenduko artxibo zerbitzuaren aginduek segituz.

Tratatua den unitatea bideo zati numerikoa da.

Orotara bederetzi datubase numeriko sortu dira, 2007tik eginiko lekukotasun guztiak barne, eremuka edo gaika sailkatuak:

- 12 AV 1-581 Ahozkotasuna Nafarroa Beherean: Amikuze
- 13 AV 1-882 Ahozkotasuna Nafarroa Beherean: Garazi-Baigorri
- 14 AV 1-764 Ahozkotasuna Nafarroa Beherean: Iholdi-Oztibarre
- 15 AV 1-387 Ahozkotasuna Lapurdin: Ahetze – Itsasu - Makea
- 16 AV 1-157 Ahozkotasuna Xiberoan
- 17 AV 1-592 Zapatagintza eta espartingintza Hazparnen eta Maulen
- 18 AV 1-1054 Euskal itsas ondarea–Donibane Lohizune/Ziburuko

portua

- 19 AV 1-1313 Euskal dantza Ipar Euskal Herrian
- 20 AV 1-309 Aturriko itsas ondarea

(Ikus datubaseen excel taula zehatza).

➤ **2.2.2 Balorizazio ekintzak**

Bilketaz eta artxibatzeaz gain (departamenduarekin partaide), Eleketa fondoaren balorizatzeko ekitaldi ezberdinak antolatu ditu Euskal kultur erakundeak : sorkuntza artistikoa, proiektu pedagogikoa eta erakusketa interaktiboak.

Balorapen operazioak:

- **« Biharko etnologoak » proiektua:** 2008-2009 ikasturtean abiarazia Donapaleuko lehen mailako eskoletan eta kolegio pribatuan, haurrek beren baitarik ikusi eta ikasi ahal izan dute bilketa lana.
- **« Kiski ta kaska » sorkuntza:** lau artista gazteek asmatua Amikuzeko bilketan aipatu gaietaz inspiratuta (transmisioa, belaunaldien arteko harremanak, euskal mitologia). Antzerkia, musika inprobisaketa eta ipuina nahasten dituen ikusgarria Donapaleun aurkeztua izan da 2008ko maiatzaren 16an.
- **« Eleketa-Amizkutarrek mintzo » erakusketa interaktiboa:** Amikuzen bildutako 30 lekukoen 72 bideo zati hautatuak izan dira eta baloratuak. Donapaleuko mediatekan estreinatua eta ikusgai 2009ko azaroaren 18tik 2010ko urtarrilaren 16ra, Baionako artxibategian aurkeztua izan da 2011 urte hastapenean.
- **Eleketa erakusketaren sareratzea EKEko atarian** (www.eleketa.com).
- **"Itsasturiak" izeneko multimedia erakusketarekin** EKEk itsas munduaren inguruko lekukotasun berri bat eskaini du, Donibane Lohizune/Ziburuko marinelen bizia multimediaren bidez kondatuz. 2010ean bildu 27 lekukotasunetan oinarritu da: arrantzale, arrantzaleen emazte, arrain saltzaile, ontziegile, xaiako langile, mariñel formatzaile, kontserbategietako langile, sare konpontzaile, etab. EKEk erakusketa hori muntatu du Pirineo-Atlantikoetako Kontseilu nagusiaren partaidetzari esker. Dirulaguntzak ukan ditu:

Gipuzkoako Foru Aldundiarena, Caisse d'Epargne Fundazioarena, Europako Arrantzarako Fondoarena (Axe 4 - Groupe Côte Basque - Sud Landes).

Donibane Lohizunen estreinatua 2011ko irailan, ondotik hainbat herri eta hiritan aurkeztua izan da, besteak beste Biarritzen, Baionan, Irisarrin, Bilbon, Hendaian, Zarautzen.

- **Itsasturiak erakusketaren sareratzea Euskal kultur erakundeko atarian (www.itsasturiak.com).**

Eleketa zenbakitan

- Ordu kopuru orokorra: **222 :21 :38 ordu.**
- **197 inkesta:** 182 euskaraz eta 15 frantsesez, **228 lekukoen** ganik bilduak (**145 gizon** eta **83 emazte**).
- 228 lekukoen sorgunea: Xiberoa (29), Nafarroa Beherea (100), Lapurdi (99).
- Inkestatuen adina : 60 urtez petik (21), 60 eta 80 urte artean (103), 80 urtez goiti (104).
- **Bederatzi datubase numeriko** AD64 departamenduko artxibo zerbitzuarentzat sortuak.
- **6039 bideo zati.**